

# JENTILBARATZA

## EZEZAGUNA BEZAIN DIBERTIGARRIA



### TESTUA ETA ARGAZKIAK



**Mikel Saez de Urabain Gabilondo**  
(Ordizia, 1968).

Suhiltzailea ogibidez 35 urte daramatza bertako eta urritiko paretak eskalatzen. Mundu osoko menditerro garrantzitsuenetan ibilia (Himalaia, Karakorum, Andeak, Patagonia, Kaukaso, Alpeak, Pirinioak...) eta horietako zenbaitetan bide berriak zabalduz (Himalaian, Kunsun Kangurun Shati forever bidea ipar horman neguan eta Karakorumen Zang Brakk mendiko horman In-surgente bidea, beste batzuen artean). Halere, etxe ondoko haitz eta mendiak ditu gustuko, Aralar eta Pirinioetakoetan bizi izan ditu bere unerik hoberenak.

Tari, Bimba Mazinga 7b+ bidean

Goierri, eskaladak oso emaitza onak eman ditu betidanik. Hala ere, bere eskalada guneak ez dira aski ezagunak. Eskaladarako pareta ugari dituen Gipuzkoako eskualde honetatik, mundu osoan ezagunak diren eskalatzailen bikainak atera dira. Josune Bereziartuak eta Rikar Otegik inguru hauetan eman zituzten beren lehen urratsak. Gure kirola praktikatzeko Goierri dauden aukeren artean, Txindoki, Zazpiterri eta besteen artean, Jentilbaratza beti izan da garrantzitsua. Eskalada teknikoa plakan eta izen propioa duten Ataungo ur zulotxoak dira ezaguri bereizgarrienak haitz hauetan.

Jentilbaratza izenak, eskaladatik kanpo esanahi mitologikoa ere badu, Jentilen baratza hain zuzen ere. Kristauak ez ziren gizon eta emakume indartsu hauen erreferentziak nonahi agertzen dira Ataungo inguruan. Guk estimu handian dugun haitzaren ondoan ere bizi omen dira. Jentilbaratzako gailurrean, izen bereko gaztelu bat egon zen eta gaur egun oraindik bere aztarnak ikusi daitezke. Jose Miguel Barandiaranek eraikin hau 1916. urtean aztertu zuen. Barandiaran berak, Aranzadi Elkartearentzat idatziriko *Excavaciones en Jentilbaratza y Kobalde, campaña de 1971* lanean dio, gaztelua XI. mendean eraikia izan zela Nafarroako erregearen aginduz,

Ausako gaztelua garai berdinekoa. Dirudienez, garai korapilatsu haietan ganaduen lapurretak eta muga politikoen eztabaidak arazo handiak ziren eta gaztelu hauek estrategikoak izan ziren.

Jentilbaratzako ertza eskalatzera edo pareta handian, hiru luze dotore egin eta gero gailurrera iristen bagara, merezi du gaztelua bisitatzeko. Momentu batez arkeologo izan nahi badugu eta ingurua pittin bat aztertu, hemen dituzue aholku batzuk. Hasteko, gazteluaren kokalekua eta diseinua aztertu genitzake. Ur putzuak eta harriz egindako pareta sendoek zelati begiratzen zuten lur ingurua. Ondoren gazteluaren azpian dagoen gela naturala bisitatu genezake. Horretarako ertzaren aldera jaitsi beharko genuke berriro, hegoalderantz metro gutxi batzuk. Zulo natural bat bilatu eta harrizko txirristara ilun batek gelara eramango gaitu. Gela hau zabala da, balkoi natural bat du Aitzarte haran aldera. Logela moduan erabiltzen omen zuten garai haietan. Luxu bat.

Gaur egun, Jentilbaratzako pareta hauetatik gortzen dugun eskalatzailen, laugarren belaunaldikoak gara. Laurogeigarren hamarkadan, Ordiziako koadrila bat, Daltonak izenez ezagunak, pareta hauetan eskalatzen hasi ziren. Garai haiek agintzen zuten moduan, nabarmenak ziren lineak behetik zabalduz. Abentura kutsu handia duten istorio zirraragarriak. Aizan

izan omen zen zabaldu zuten lehenengo bidea, ausardi handiz irekia. Feminismoaren aldeko mugimendua goratzen duen izena. A3ko bidea. Gerora, izarrak izango ziren bi gaztetxoek, Manuk eta Rikarrek librean egin zuten, 7a zailtasuna ezarri. Egindako balentria gutxi ez balitz, oinutsik eta magnesiorik gabe eskalatzea lortu zuten ere. Garai haiek oso errebindikatzailak ziren. Ondoren, Sumendi, Plastikolaris, Magnesiorik ez eta abar izeneko beste bide batzuk ireki zituzten. Garai haietan gogoz eta indartsu ibili ziren eskalatzaileak, besteak beste, Pintxo, Zabala, Marraskillo, Luisi, Imanol L., Jon, Imanol M., Kiosko, Txata, Rikar, Manu eta Ramon izan ziren.

Bigarren belaunaldia laurogeiko hamarkadaren bukaeran hasi zen. Hauek bizitako garaia ez zen lehen belaunaldiak bizitakoarekin alderatuz hain zirrargarria izan. Aire berriak ekarri zituzten, Frantziatik zetozen eskalada ohiturak. Soka goitik erantsita zutela ekipatzen zituzten bideak. Zailtasuna zuten helburu, arriskua eta konpromisoa baztertzuz. Bimba Mazinga, U2, Alien, garai haietako adierazle dira. Beste batzuen artean, Rikar, Manu, Ramon, Txesti, Papildo, Alberto eta Mikel izan ziren indartsuen ibili ziren eskalatzaileak.


Hirugarren belaunaldia hogeigarren mendearen bukaerarekin etorri zen. Garai horiek geldialdi txiki bat ekarri zuten Aitzarte haraneko paretara edo honetara. Inguruan, beste sektore batzuk aurkitu ziren, eta goierritar eskalatzailek bertan aurkitu zituzten jolas aproposagorik. Urte gutxian, Artzateaitza Goierriko sektorerik frikiena bihurtu zen. Jentilbaratzak apenas ezagutu zuten bide berririk. Holidais in Camboia eta Comic Porno, ekipatu zituzten. Bide hauek garai haietako eskalada ohituren adierazle dira, heldulekuen fabrikazioa onartu zituzten. Jentilbaratzako ertza garai honetan ekipatu zuten, gerora sekulako arrakasta izan duen bidea. Bere balioa oso

garbi ikusten ez zuten arren, Pintxo eta Zorioni zor diegu bide honen sorrera. Pintxo, Zorion, Javi, Iñigo eta Victor izan ziren garai hauetan kementsuen ibili ziren eskalatzaileak.

Azken belaunaldia, laugarrena alegia, Jentilbaratza berriro ere eskaladarako erakargarria egiten saiatu da. Bide berriak zabaldu dituzte eta lehendik zeudenak hobetu egin dituzte. Inguruak duen indarrak oharturik, libre geratzen diren haitz puskek bide desberdinez betetzen joan dira. Zortzigarren graduako bide batzuk ekipatu dituzte eta berriro sokadak bueltatu dira paretara hauetatik zintzilikatzen. Mikel, Aritz, Tari, Xabi, Unai, Aitzol, Apa, Indio, Jon, Imanol, Beñat, Joan Ander... dira, besteak beste, garai hauetan indartsuen dabilzan eskalatzaileak.

Azkenik, Gipuzkoako Mendizale Federazioak egin duen lan izugarriari esker, seguruak aldatu dituzte, deskuelgeak jarri dira bilera guztietan. Goierritarrok puntako eskola bat berreskuratu dugu gure gozamenerako. Aipatu dudan bezala, Goierri eskalada egiteko makina bat leku daude. Atun bertan lau zona desberdin ditugu. Horietako bi, Artzaitzeta eta Aizkoate momentu honetan ZEPA (zona especial de proteccion de aves) delakoaren barruan daude. Gipuzkoako Diputazioarekin eta Gipuzkoako Mendi Federazioarekin harremanetan gaude eskalada arautzeko asmoz. Lizarusti, bere hiru sektoreekin, Ataungo beste zona interesgarri bat da, goierritarrok eskalatzen ibiltzen garena. Abaltzisketan, Zaldibian eta Zegaman ere gure kirola egiteko aukerak aurkitu ditugu.

Eskalada arrazoi nahikoa da Gipuzkoako eskualde hau bisitatzeko. Ohikoagoak diren beste jarduerak batzuek, mendizaletasuna, xendazaletasuna, mendi txirringak,... zaletuak erakartzen dituzten bezala, eskalada izan beharko luke horien parte ere. Paisaia paregabeak, lasaitasuna eta bertoko jendeen ongi etorria bermatuta daude.





### NOLA IRITSI

Jentilbaratzako domoa, Gipuzkoako Ataun herrian dago, San Martin auzoan, Aitzarte haranean. Herri luze honetara iristeko, A1 errepidetik etorri gero, Beasainen errepidea utzi eta Gi 2120 errepidea hartu Lazkao aldera. Ataungo San Martinera iristean, herria zeharkatu eta Arrateta markatzen duen bidegurutzea hartu Gi 4151 errepidea segituz. Vittor jatetxea baino 10 metro lehenago dago bidegurutze hau. Errepidetik gorantz, gure aurrean momenturo Jentilbaratzako domoa eta bere azpian dagoen harrobia izango ditugu. Eskaladarako gunea, justu beste aldean kokatuta dago. Kotxea errepidearen ondoan utzi Dostollo baserrira doan zubitxoaren aldamenean. Hemen ez dago leku askorik eta ongi aparkatzea komeni da, baserrikoei eta errepidetik gora eta behera doazen kotxei trabarik egin gabe. Hemendik oinez, igoera gogorrari aurre egin eta 10 minutuan eskalada sektoreetan izango gara.

**Kontraste bat traverso dil queso 7b+ bidean**